

BALENDIN
ENBEITA



EUSKARA BIZI

11. saria



bertsopaper-lehiaketa

BALENDIN ENBEITA



Algorta, 1979-7-29

Balendin Enbeita bertsotari

Hemen gatoz atzera, urte bateko etenaldiaren ostean, gure Balendin Enbeita bertso-paper lehiaketaren 11. edizioa iragartzen. Deialdi honen bitartez, zuen bertso-jartzaile sena piztu gura dugu, lehendik buruan bueltaka dabilzkizuen bertsoak edo oraindik bururatu ez zaizkizuenak papereratu ditzazuen. Duela bi urte, bertso uzta ezin oparoagoa jaso genuen eta aurtengoan ez dugu gutxiago espero. Gogoan izan BALENDIN ENBEITA zenaren omenezko lehiaketa urte birik behin izaten dela. Hortaz, ekin idazteari eta ez galdu aukera!

A R A U A K

PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan edonongo bertso-jartzaileek har dezakete parte. Adinaren arabera, atal bi bereizi ditugu.

***Helduak:** 19 urte edo gehiagokoak.

***Gazteak:** 18 urtera artekoak, 2013an 18 urte betetzen dituztenak barne.

EGIN BEHARREKO LANA

Bertsoen gaia, neurria eta doinua libreak izango dira parte-hartzaile guztientzat.

***Helduen** atalean, parte-hartzaile bakoitzak gutxienez 8 bertso egin beharko ditu, eta gehienez 12.

***Gazteen** atalean, parte-hartzaile bakoitzak gutxienez 6 bertso egin beharko ditu, eta gehienez 10.

Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste bertso-sorta aurkez dezake.

EPEA ETA BALDINTZAK

***Lanak** jasotzeko azkeneko eguna, **2013ko urriaren 18a** izango da.

***Bertso** guztiek berriak izan beharko dute, hots, beste inon saritu edo argitaratu gabeak.

SARIAK

Helduentzat:

*1. saria: txapela, 900€ eta garaikurra.

*2. saria: 600€ eta garaikurra.

Gazteentzat:

*1. Saria: txapela, 200€ eta garaikurra.

*2. Saria: 100€ eta garaikurra.

Bertso-jartzaile batek ezingo du sari bat baino gehiago jaso; beraz, lortzen duen saririk handiena emango zaio.



LANEN JABETZA ETA BESTELAKOAK

***ALBEk** izango du aurkezturiko edozein lan argitaratzeko eskubide osoa. ALBE izango da saritutako eta argitaratutako lanen jabe

***Lehiaketa** honetan parte-hartzeak arau hauek guztiak onartzea dakar. Arautegi honetan jasotzen ez den edozein gorabeheratan, ALBEk izango du erabakitze ahalmena.

Lehiaketari buruzko informazio gehiago gura izanez gero, noa hemen harreman bideak:

*Telefonoa: 605 704 385 *E-maila: albegetxo@gmail.com

NORA ETA ZELAN BIDALI

Bertsoak posta arruntez zein posta elektronikoz bidal daitezke.

***Posta arruntez** bidaltzekotan, bertso-paperean ez du egilearen izenak agertu behar. Bertso-sorta bakoitza izengoitiz sinatuko da eta egilearen izen-abizenak, jaioteguna, helbidea eta telefonoa/faxa/e-maila aparteko gutunazal batean sartuko dira, kanpoaldean izengoitia ageri dela.

Gutunazal bien egilea zein ataletara aurkezten den ipini behar da.

Hona hemen gure helbidea:

*BALENDIN ENBEITA 11. SARIA
ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA (ALBE)
Martikoena 16, 2. pisua.
48992 GETXO*

***Bertsoak** **posta elektronikoz** bidali gura badira, Word formatuko dokumentu bi bidali behar dira. Batean bertso-sorta bera eta goitizena; eta bestean, goitizena eta norberaren xehetasunak. Hona hemen gure helbide elektronikoa:

balendinenbeita2013@gmail.com

EPAIKETA ETA SARIA-EMATEA

***Epaimahaia** ALBEk eratuko du eta sariak ALBE GALA ekitaldiaren barruan emango dira.

***Epaimahaiaren** erabakia aldaezina izango da.

***Epaimahaiak** sariren bat jaberik gabe utz lezake, bai eta akzesit bat edo beste eman ere, hala iritiz gero.